BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEKO GARBIGUNE ZERBITZURAKO EDUKIONTZI METALIKOEN HORNIDURA KONTRATATZEKO

I. KAPITULUA. BALDINTZA OROKORRAK

1. BALDINTZA AGIRIAREN XEDEA ETA HELBURUAK

Baldintza teknikoen agiri honen xedea da Urola Kostako Udal Elkartearen Garbigune zerbitzurako metalezko edukiontziak eskuratzeko eskaintzak arautuko dituzten baldintzak jasotzea (30 m³-ko sei eta 10 m³-ko bi edukiontzi izango dira orotara).

Hornidurak hurrengo kapituluetan adierazitako moduan egingo dira, eta eskaintzan jasotako prezio unitarioa kontuan hartuta ordainduko dira guztiak.

2. LURRALDE EREMUA

Urola Kosta eskualdea da kontratu honen lurralde eremua.

3. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 60.400,00 eurokoa da (BEZik gabe).

Prezio unitarioak (BEZik gabe):

EDUKIONTZIA	PREZIOA (BEZik gabe)
30 m³-ko edukiontzia	7.900,00
Guztira 6 edukiontzi	47.400,00
10 m³-ko edukiontzia	6.500,00
Guztira 2 edukiontzi	13.000,00
LIZITAZIO OINARRIA	60.400,00

4. EDUKIONTZIEN EZAUGARRI TEKNIKOAK

Hornitu beharreko unitateek ezaugarri tekniko hauek bete beharko dituzte:

a) Dimentsioak (mm-tan neurtuta). Gutxi gorabeherako neurriak:

30 m³-ko edukiontziak

- Barneko neurriak: 6.000 luze × 2.260 zabal × 2.200 garai
- Kanpoko neurriak: 6.310 luze × 2.530 zabal × 2.495 garai

10 m³-ko edukiontziak

- Barneko neurriak: 6.000 luze × 2.260 zabal × 800 garai atzealdean eta 1.470 aurrealdean.
- Kanpoko neurriak: 6.310 luze × 2.530 zabal × 1.000 garai atzealdean eta 1.670 aurrealdean.

b) Kaxa:

Manipulatzean deformazioak saihesteko adinako sendotasunarekin eraikiak izan beharko dute. Kako, marrel edo antzeko sistema baten bidez manipulatzeko modukoak izango dira. Kakoa 1.570 mm-ko altuera egongo da.

Kaxak gutxienez 2 profil ijezturekin eginiko bastidore bat izango du (IPN 180 edo antzeko luzetarako habeak, kasurako), bai eta IPN 80 edo antzeko zeharkako trabesak ere, argi distantziakidearekin, edukiontziaren oinarria jasan ahal izateko. Gutxienez 3 trabes bertikal, ertzetako biez gainera.

Bastidoreak beheko irristatze sistema bat izango du atzealdean, irristatzeko metalezko arrabol edo gurpilen bidez eta 200 mm-ko diametroko koipeztagailuekin, dagozkien zorro eta ardatzekin.

Oinarriko txapak urak husteko bideak izango ditu aurrealdean.

Gurpilen arteko kanpoko distantzia 2.200 mm-koa izango da, zorroak barne.

Erabili beharreko xaflak altzairu industrialez eginak izango dira eta gutxienez “EN S235JR” (DIN St-44) kalitatea izango dute. Materialaren ziurtagiria aurkeztu beharko da.

Xaflen gutxieneko lodiera **5 mm** izango da (oinarrian eta aurrealdean), eta **3 mm** alboetan eta ateetan. Txapa desugertua izango da.

Atzeko panelak orri bikoitzeko atea izango du, eta itxiera tolesgarria alborantz biratzen diren bi orrirekin; itxiera, berriz, erraz manipulatzekoa eta ez harrapatzekoa izango da. Alabaina, horrek ez du eragozten bestelako modeloren bat aurkeztea, betiere manipulatzeko segurtasun-neurri egokiak betetzen baditu.

Ateen ainguraketak indartua izan beharko du, zurruntasun handiagoa emateko.

Iristeko mailak aurreko aldean, gidariaren aldean, bai eta barrualdean ere, manipulazioak egin ahal izateko.

Kordoi jarraituan soldatuta, hari jarraituko makina erdi-automatikoarekin eta gas babesarekin.

Materialen kalitate kontrola, soldadura eta akaberak.

c) Gainazalaren akabera:

Pintura tratamenduak edukiontziaren iraunkortasuna ziurtatu beharko du, eta gutxienez honako hauek jaso beharko ditu:

- Lehen eskualdia: 2 inprimatze eskualdi (grisa), 50 mikrako lodiera guztira.
- Bigarren eskualdia: Bizkor lehortzen den esmalte sintetikozko bi eskualdi, Urola Kostako Udal Elkarteak definituko duen RAL koloreko akaberarekin (bigarren eskualdia kaxaren kanpoaldean soilik).

Unitate guztiak ordenan zenbakituta emango dira, adierazten den moduan, Urola Kostako Udal Elkarteak dagokion garaian definitutako logotipoa, errotulua eta mezua inskribatuta (horrek ez du ekarriko kostu gehigarririk). Logotipoa jartzeko, 70 × 55 cm-ko xafla bat aurreikusiko da edukiontziaren aurrealdean, kakoaren gainean.

5. INFORMAZIO TEKNIKOA

Hornidurarekin batera, Eragiketa eta Mantentze Lanen Eskuliburuaren ale bat emango da, edukiontziak behar bezala ezagutzeko eta erabiltzeko. Gida horiek edukiontzien funtzionamendua azaltzen duten planoak eta diagramak izango dituzte.

Berehalako laguntza teknikoa bermatuko da, eta eskaintzan adieraziko dira zerbitzuaren baldintzak.

6. EDUKIONTZIAK ENTREGATZEA

Edukiontzien hornidura adjudikatu zaion pertsona edo enpresa arduratuko da edukiontziak garraiatzeaz eta Urola Kostako Udal Elkarteak adierazten dion lekuan deskargatzeaz.

Pertsona edo enpresa adjudikaziodunaren kontura izango dira eragiketa horien logistika eta kostuak, bai eta muntaketa lanak ere, beharrezkoa izanez gero (lan horiek aire zabalean egin ahal izango dira).

Adjudikazioduna arduratuko da hornidura kalitate baldintza onenetan iristeaz eta edukiontziak zerbitzuan jartzeaz.

7. ENTREGATZEKO LEKUA

Pertsona edo enpresa adjudikaziodunak Urola Kostako Udal Elkarteak adierazitako instalazioetan entregatuko du kontratuaren xede den hornidura (betiere Urola Kosta eskualdean).

Entrega Udal Elkarteak ezarritako ordutegiaren barruan egin behar da, astelehenetik ostiralera, 08:30etik 13:30era, eta gutxienez 48 ordu lehenago jakinarazi behar da.

Pertsona edo enpresa adjudikaziodunak garraiatuko du hornidura eta hark deskargatuko du entregatzeko lekuan, Urola Kostako Udal Elkartearen langileak eta baliabide materialak inola ere inplikatu gabe.

Hondakin trinkogailuak zirkulatzeko behar duten dokumentazio administratibo guztiarekin entregatu behar dira.

8. ENTREGATZEKO EPEA

Pertsona edo enpresa adjudikaziodunak 90 egun natural baino gutxiagoko epean hornitu beharko ditu edukiontzi guztiak, kontratua formalizatzen den unetik zenbatzen hasita.

9. HARRERA

Urola Kostako Udal Elkarteak baldintza agiri honetan eskatzen diren ezaugarri guztiak egiaztatzeko proba egokiak egiten dituenean jasoko dira hornidurak. Udal Elkarteak dagokion harrera akta idatziko du.

Probak amaitzen direnean eta emaitzak egokiak badira, Urola Kostako Udal Elkarteak hartutzat emango du hornidura, eta orduan hasiko da kontatzen berme epea.

10. ESKAINTZAREN DOKUMENTAZIO TEKNIKOA

Edukiontzien ezaugarrien dokumentazio teknikoak zehaztapen eta deskribapen-agiri hauek jasoko ditu gutxienez:

- Eskainitako edukiontzien neurriak eta edukiera erabilgarria, bai eta horniduran bilduriko elementu guztien krokis kotatua ere.
- Eraikuntza eta fabrikazio sistema, eraikuntzako materialak, lodierak, kalitateak (loturen sendotasuna eta estankotasuna: soldadura mota...) eta edukiontzia osatzen duten elementuen akaberak adierazita.

- Edukiontzien gainazalaren akaberarako erabiltzen den sistema edo metodoa, baita pintatzeko baliatzen dena ere.

- Edukiontziaren pisua hutsean. Edukiontziaren erresistentzia mekanikoko irizpideen arabera onar daitekeen gehieneko pisua.

- Edukiontziaren deskribapen grafikoa, planoen eta koloretako argazkien bidez.

- Zahartze epea produktuaren erabilera normalarekin.

- Aurretik deskribatutako ezaugarriez gainera, enpresa lizitatzaileek interesgarritzat jotzen duten dokumentazio guztia erantsi ahal izango dute, baita horniduraren kalitatea, materialak, probak, saiakuntzak eta halakoak hobetzen dituztenak ere.

- Hornidura hobetzen duten beste prestazio batzuk.

11. SEGURTASUN ETA OSASUN SISTEMA

Pertsona edo enpresa adjudikazioduna izango da bere langileen eta azpikontraten segurtasunaren, laneko arriskuen prebentzioaren eta osasunaren arloan egiten dituen jardueren erantzule.

Pertsona edo enpresa adjudikaziodunaren prebentzio antolamenduak egokitu egin beharko du Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean eta Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onesten duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuan araututakora.

Zerbitzuak garatzeko, pertsona edo enpresa adjudikaziodunak bere Segurtasun eta Osasun Sistemaren antolaketa aurkeztuko dio Urola Kostako Udal Elkarteari, barnean harturik dokumentazioa eta aplikatu beharreko legeria, prebentzio antolamendua, ezbehar tasa kontrolatzeko sistema eta enpresa jarduerak koordinatzeko sistema.

Urola Kostako Udal Elkarteko langileek aukeran izango dute kontratatutako zereginen segurtasun ikuskapenak egitea, eta, ildo horretan, arriskuak prebenitzeko jarraibideak eman ahal izango dizkiete pertsona edo enpresa kontratistei. Horretarako, ahozko argibideak eman ahalko dituzte edo zerbitzuak eskaintzen dituzten instalazioetako arriskuen ebaluazioak entregatuko dituzte, baita lan jarraibideak edo egokitzat jotzen duten beste edozein bitarteko eman ere.

Beharrezkoa izango da prebentzio baliabideak egotea indarrean dagoen legerian ezarritako kasuetan.

Pertsona edo enpresa adjudikaziodunak ziurtatu behar du enplegatuek (propioak edo azpikontratatuak) badituztela behar adinako prestakuntza eta informazioa beren lan arriskuei eta egin beharreko prebentzio neurriei buruz, eta badituztela, orobat, norbera eta taldea babesteko beharrezko ekipamendu homologatuak ere. Halaber, enplegatuei jakinarazi beharko die zer arrisku eta prebentzio neurri hartu behar diren lanak egin beharreko instalazioetan. Langileek berariazko baimena izan beharko dute kontratuaren xede diren lanak egiteko. Era berean, enpresa adjudikaziodunak behar diren irtenbideak ezarri beharko ditu langile guztiek har ditzaten neurri horiek.

Pertsona edo enpresa adjudikaziodunak arduradun bat izendatuko du, kontratu honi lotuta une bakoitzean segurtasunaren eta osasunaren arloan egiten ari diren prebentzio eta zuzenketa lan guztiak etengabe kontrolatzeko eta gainbegiratzeko, eta une oro bermatuko du enpresaz kanpoko ondasunen eta pertsonen segurtasuna, modu etenean edo jarraituan lotuta daudela ere. Era berean, bermatu beharko du berehala erantzuten diela Udal Elkarteak segurtasunaren eta osasunaren arloan egiten dituen errekerimenduei.

Izendatutako pertsonaren ardura izango da behar diren jarraibideak ematea pertsonen eta ondasunen segurtasun osoa bermatzeko (izan enpresakoak, izan besterenak), betiere lanak egiterakoan eraginik izan badezakete.

12. ENPRESA JARDUERAK KOORDINATZEA

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legeak ezartzen duen betebeharrari dagokionez (171/2004 Errege Dekretuak garatzen duen artikuluan, “Enpresa jarduerak koordinatzea”), Udal Elkarteak badauka prozedura bat ezarrita koordinazio hori kudeatzeko. Horregatik, kontratua formalizatu ondoren eta lanak hasi aurretik egin beharko dira koordinazio jarduerak.

Pertsona edo enpresa adjudikaziodunak, lanak hasi aurretik, eskatzen zaion dokumentazioa aurkeztu beharko du. Enpresa adjudikazioduneko langileak edo haren azpikontratistak ezingo dira sartu Udal Elkartearen instalazioetara kontratatutako lanei ekiteko, harik eta dokumentazio hori baliozkotu arte eta baliozkotze hori berariaz baimendu arte. Dokumentazio hori lanak hasi baino 48 ordu lehenago aurkeztu beharko da gutxienez.

Urola Kostako Udal Elkarteak **e-coordina** plataforma erabiltzen du enpresa jardueren koordinazioarekin lotutako dokumentuak kudeatzeko, eta, beraz, dokumentazioa plataforma horren bidez aurkeztuko da. Pertsona edo enpresa adjudikaziodunak Laneko Arriskuen Prebentzioko Enpresa Jardueren Koordinazioa egingo du (171/2004 Errege Dekretua), eta, horretarako, alta emango zaio e-coordina web aplikazioan. Hortik, Udal Elkarteak emandako dokumentazioa deskargatu eta kontrataren eta azpikontratistaren dokumentazioa igoko du (aplikazioak eskatzen diona). Agiri horiek eguneratuta edukiko ditu beti, Laneko Arriskuen Prebentzioko Enpresa Jardueren Koordinazioa behar bezala gauzatzeko eta presazko kasuetan noiznahi baimena eduki ahal izateko.

Dokumentuak tratatzeaz gainera, jarraibideak emango dira eta gainerako enpresekin bilerak egingo dira beharrezkotzat jotzen denean. Era berean, Urola Kostako Udal Elkarteak zainduko du enpresa kontratistek eta azpikontratistek betetzen dituztela prebentzio-araudia eta jasotako jarraibideak.

Enpresa adjudikaziodunak jakinaren gainean jarri beharko du Udal Elkartea, dela larrialdiak gertatzen badira zerbitzua ematen ari den bitartean, betiere Udal Elkarteko langileen osasunean edo segurtasunean eragina izan badezakete, dela enpresak istripuren bat izan badu jarduera konkurrenteek sorturiko arriskuen ondorioz.